

ALTZA

1.998 ko Ekaina-Uztaila • Altzako Herri Batasuna • Dohainik • 1.Urtea • 1.Zenbakia

Barne boletina gure altaboza



Eskuartean duzuen aldizkari honen, izenburuan dioen bezala, Altzako Herri Bata-sunaren altaboza izatea du helburu. Nolabait herrian ditugun komunikazio hutsuneak bete nahi ditugu, gure inguruko ahalik eta jende gehien bereganatuz.

Herri mailako boletina izanik, bertan ez ditugu beste zenbait aldizkarietan azal daitezkeen gai zabalak jorratuko. Honek ere ez du esan nahi gai hauek alde batera utziko ditugunik, baina bai maila lokal batean kokatuko ditugula.

Azken finean boletinarekin lortu nahi duguna benetazko komunikazio bat litzate-

ke, joan-etortzen dena, bi norabideetakoa. Nola? Gure inguruarekiko kontaktu eta el-karrizketak hobetuz; harreman pertsonalak suspertuz. Horrela soilik lortuko baitugu gure mezua euren gezurren gain jartzea. Eta hemen sarearen ideia azalduko litzauguke, hots, komunikazio sare pertsonalizatuaren ideia.

Honek guztiak aukera emango liguke gure informazioa gero eta jende gehiagora helaraztea

Azkenik aipatu boletina bi hila-betean behi argitaratuko dela eta printzipioz soilik euskaraz. Hau zenbaitzuentzat oztopo bat izan daitekeen arren, euskara alorra lehentasunezko ildotzat jo dugu.

Editoriala

Komunikabide handiek, gure proiektuaren kontrako interesari erantzuten diete. Gure ahotsa lailarazten ez dutenean, zikindu eta manipulatzeko dute.

Gezur handietaz berehala jabetzen gara, baina buruan filtroa badugu ere, sarritan gezur txiki-ekin kolatzen zaizkigu, gure burmuinera iritsiz. Gezuraren kontrako tresnak sortu behar-rean gaude beraz: komunikazio propioak garatu. Eta hori da barne boletina honen xedea: gure arteko komunikazioa erraztu eta sendatu.

Barne boletina hau dinamika lokalean oinarrituta egongo da, eta are gehiago, harreman pertsonaletan. Barne komunikazio-rako eta bide batez gizarteari zuzenduta kanpora eramango gaituen komunikazioa izango da; ez zuzenki, gure inguruaren bidez baizik, gure jendearen bitartez, eskuz esku, ahoz aho.

Enbor gisako egitura, enbor-ratik hasita hostoetara heldu arte, hosto ahulena haizea dabilenean erortzen direnak baitira. Eta badakigu hemen Euskal Herrian zein haizea fuertea dabilen. Harreman naturalak komunikatzeko tresna gisa, eta loratu-ta izango den zuhaitza, osatu-tako sarea Ezker abertzale oso-aren mesederako izango da. Zirkulu hori handitzea izango da guztion egin beharra eta helburua, komunikabide erraldoiei eragina murriztuko diona Jaan eta etorria izango duen komunikazioa. Behintzat hala saiaturko gara, gogoz eta ilusioz.

Hemen daukagu lehenengo alea. Ondo irakurri, jabetu, zabaldu, zure iritzia eman, hobatzeko eta osatzeko. Errez dezagun Altzako Herri Batasuna osatzen dugunon arteko komunikazioa denon artean. Aberas dezagun partei izanik.

Altzako Herri Batasuna

Jarrai
hamabi urte
Altzan

3.orrialdea

Koldoren
idatzia
gartzelatik

3.orrialdea

Sozio
ekonomia:
alternatibak

4.orrialdea

Ekaina: Badira jaiak gure artean

➤ Buenabista, Larratxo, Herrera, Oleta, Altza Gaina, ...



Altzan, ekaina festen sinonimoa dela esan genezake, izan ere hil honetan gure herriko ia jai gehienak ospatzen baitira: Buenabista, Larratxo, Herrera, Oleta, Altza Gaina...

Eta hau ikusirik esan genezake puntu honek ere nolabaiteko desberdintasuna markatzen duela Altza eta Donostia-
ren artean, Donostian "Aste Nagusi" bat duten bitartean Altzan "Hilabete Nagusi" bat dugulako. Hor ditugu jada aipatu jaiak, auzo bakoitzak bere erara antolatuturik, bakoitza bere izaera propioarekin, eta bere

borondate onez antolatuturik. Altzako beste zenbait auzoetan gauza bera gertatzen da beste hilabeteetan: Jolastokieta, San Antonio, Molinao, Santa Barbara...

Garbi dago gure herriko auzo desberdinetan ospatzen diren jai desberdinek, izaera eta ezaugarri desberdinak dituztela, baina bada iai

hauek guztiak amankomunean duten ezaugarri bat, guztiak Altza osatzen dutela hain zuzen ere.

Puntu honetan beharrezkoa litzateke erreflexio bat egitea. Komenigarria da orain arte bezala jarraitzea? Ala bada garaia Altza Herriko jai orokor baten planteamari-

dua mahaigaineratzeko? Garbi dago hasiera batean gauza zaila izan daitekeela, baina ez al litzateke positiboa izango auzoen arteko eta euren bizilagunen arteko intererlazioari begira? Aukera honek ez liguke Altza Herriaren identitatea artikulatzeko bidea emango?

Zergatik dira hain garrantzitsuak herriko jaiak? Herriko jendeak antolatzen dituelako, eta jai giroan ere herria eraikitzen delako: kultura, hizkuntza, harreman zuzena auzokide edota herrikideekin... Urte osoan garenaren adierapena dira. Horregatik eman beharke genieke benetan duten garrantzia.

Altzako jaiak: autokritika txiki bat.

Ezker Abertzalea osatzen dugunon artean galdera bat planteatu beharke genieke gure buruei: zer egiten dugu gure herriko jaien alde? Eta are gehiago, zer egiten dugu Altzaren alde? Hau dela eta, Altzako Ezker Abertzaletik datozen jaietan parte hertzerak animatzen zaituztegu, auzo bakoitzeko jai batzordean sartuz, ahal den neurrian inplikaturik, Gure erronka Altza herria eraikitzea delako. Animo eta parte hartul

Iritzia

Jai herrikoiaK?

Beti eman digute nolabaiteko inbidia beste lekuetako jaiak, Altzatik kanpo egiten direnak. Bai zenbait lekutan jaiak "abertzaleagoak" direlako, bai koadrilek parte hartzen dutelako, bai herritar sentimendu bat nabari delako...

Baina Altzan, zertxobait fijatu ezker, badugu beti faltan botatzen ditugun ezaugarri horietatik zeozer, eta ez bada orain, bai potentzialki behintzat.

Baina nola lortuko dugu jaiak abertzaleak izatea, baldin eta Ezker Abertzalea osatzen dugunok Jai Batzordeetan parte hartzen ez badugu?

Nola lortuko dugu koadrilen jetsiera koloretzu, errebindikatibo eta alaitu bat baldin eta guk, eta batez ere gazteak, euren koadrilak sortzeko gai ez badira?

Nola lortuko ditugu "kaña" gehiago duten jaiak, programa desberdinen osaketan parte hartzen ez badugu?

Nola lortuko dugu herritar sentimendu edo izaera hori izatea besteek egiten dituzten ekintzak ikustera mugatzen garenean, ikusle hutsak bihurtzen garenean?

"Jai herrikoiaK" edo "Jai partehartzaileak" eskatzen ditugu. Baina zertan oinarritzen da jai bat "herrikoia" edota "partehartzaile" baten izaera?

Aurrekontuan? Udaletxeak ematen duen subentzioan? Edota gu geuk jai horietako motoreak izatean? Bizi ditzagun jaiak, berez diren edo beharke luketen bezala, gure jaiak bezala.

Gora Altza osoko jaiak!

Zapi

Jai Batzordeko Partaidea

Koldo de Markos: Murtziatik Altzara

Ezin falta gure lehen boletin honetan gure herriko presoei buruzko erreferentzia. Jarraian irakur ahal izango duzue Murtziako espetxetik Koldo De Markosek espreski zuentzat idatzirikoa artikulua.

Altzako Herri Batasunako kideek plazaratu nahi duzuen aldizkari berri honetan eskeini diguzuen txokotik, ezer baino lehenago agur bero bat eskeini nahi dizuegu.

Zorioneko ekimen honekin herriko zein Euskal Herriko eraikuntzan konprometituta gauden guztiok topagune berri bat izango dugu. Pausoz pauso eta egunez egun joan beharko dugu Euskal herriaren eraikuntzan aurrerapausoak ematen. Halaber, baldintza egokiagoak prestatzeko borrokatzen jarraituko dugu: gure etorkizunaren jabe izateko; demokrazia gure kaleetan, plazetan eta nonnahi sustraitzeko; hots, Euskal herriak hitza har dezan.

Alabaina, ezin dugu mirarien zai egon. Etorkizuna egunero landu behar dugu arlo guztiak indartuz: auzo, herri zein nazio mailan lan eginez. Gure nahiei eta beharrei aurre egiteko, pertsonalki zein kolektiboki partaide aktiboak izan gaituzten. Jarrera aktibo hauek jakin badakigu esfortzu eta neke handiak eskatzen dituztela, haatik. Eginahalak egin behar ditugu oztopo guztiak gainditzeko.

Espainiako demokraziaren mugak aski nabarmenak dira euskaldunontzat: euskalduntasuna ezin dugu aldarrikatu ez politikoki, ez sindikalki, ez sozialki, ez ekonomikoki, ez kulturalki. Espainolismoa euskal usaina darion edozer gauzaren beldur da, txikiena izanda ere. Hiru urte pasa dira ETAK Alternatiba Demokratikoa plazaratu zuenetik. Honen helburuak garbiak dira: gatazka eta guztion sufrimendua gainditzea eta herria etorkizunaren jabe

izatea. Laburbilduz, Euskal Herrian demokrazia behin betikoz lortzea.

Bestalde, bi urte f' erdi pasatu dira Euskal Preso Politikoaren Kolektiboko kideak borrokan gaudenetik, eta borroka honetan espainiar estatuko arauak bermatzen dutena besterik ez dugu eskatzen, hots, Euskal herrira eramatea, preso bakoitza bere etxetik ahalik eta hurbilen egotea, gure senideengandik gertu egotea.

Eta ez gara gu bakarrik borroka honetan murgilduta gaudenok, hor daude kalean egindako iharduera guztiak: Europako batzordearen irizpidea, Gasteizko legebiltzarra, Euskal herriko agente sozialak... eta hauen guztien gaineratik eguneroko borrokak azpimarratu nahi ditugu, eta hauekin batera egindako mobilizazio erraldoiak. Sakabanaketa ez da urruntasuna bakarrik. Urruntasuna inpunitatearen gakoa da. Katemaila guztiak ondo lotuta dituzte(hedabideak, politikoak, epaileak...) Inpunitate osoaz aritu dira eta ari dira. Damuketa bultzatu nahi zuten gure herriaren erresistentzia belaniko jartzeko. Ez dira jabetu pertsonak izan arren eta ederki sufritu arren gure atzean herri bat dagoela eta horrek izugarriko indarra ematen digula. Urteak aurrera egin ahala ez dute uztairik lortu eta ederki dakite eremu antzuan ari direla: gure baratzak ez du ematen damuturik.

Hau guztiaren aurrean sakabanaketa mendeku bihurtu da. Tes-tuinguru honetan koka genezake bakarrik isolamendua, jipoiak, neurri arbitrarioak, miaketa basatiak, irainak, mehatxuak, ikas-

ketak bideratzeko oztopoak, laguntza medikueza, komunikazioen murrizketak, gutunen zentsura eta beste hamaika gauza.

Hauxe da sakabanaketa-aren egunerokotasuna. Baina helburuak aldatu dituztela esan daiteke. Militanteak ezin dutenez garaitu, pertsonak suntsitu nahi dituzte. Mezua garbia da: fisikoki zein psikikoki izorratuak atera gaitzela. Nola ulertu daiteke bestela operatzeko beharra duten lagunek egoera horretan jarraitzea?

Inpunitate horrekin bukatzeko beharrezkoa dugu Euskal Herri-ratzea. Horrela bakarrik izan dezakegu multzoak ematen duen indarra, era berean zuen indarra eta elkartasuna bideragarriago egingo delarik. Espetxean hil gehiago egon ez dadin, oinarriko eskubideak bete daitezten eta beste arlo batzuetan ere aurrerapausoak egoteko gure herrira eraman behar gaituzte.

Badakigu bahitu politikoak garela eta horek kemena eta adorea ematen digu aurrera egiteko. Gure atzean zuek guztiak zaudete eta hori pizgarria izateaz gain, gure ilusio eta indarraren iturburua ere bada. Egonez zaitzete lasai inoiz ez dugu etsiko eta.

Ezin dugu galdu aukera herritar guztioi besarkada bat bidaltzeko. Bidenabar, animatu nahi zaituztegu lanean tinko jarraitzeko. Joan gaituzten herri berri bat sortzen euskarari eta elkartasunean oinarrituta, zuetariko asko eta asko dagoeneko ari zareten bidetik.

Aurrera Boliel
Euskal Presoak Euskal Herrira!

Jarrairen 12. urteurrena Altzan

Aurten Altzako Jarraik hamabi urte bete ditu, eta hau dela eta, une aproposa izan liteke ibilbidean geldidune bat egiteko eta ibilitako bideari gainbegiradotxo bat emateko.

Altzako Jarrai 1986,ean sortu zen, hain zuzen ere, OTAN, GAL, desindustrializazioaren garaian eta baita Herri Batasunaren hazkunde elektoralaren edota euskal presoaren borrokaaren garaian ere. Hori Euskal Herria mailan, baina eta

Altzan? Garai haietan eskuartearen zegoen gai nagusia Herriko bat irekitzearena zen: Txalaka jaiotzearen zegoen.

Jarrairi dagokionez, zenbait saiakera ondoren, dozena bat lagun bitzeta lortu zen, eta hortxe sortu zen lehengo Altzako Jarraiko taldea. Hutsetik, Donostiako talderik handiena izatera pasa zen. Dena den hasiera guztiak bezala hau ere nahikoa zaila izan zen eta zenbait arazo eman ziren, baina taldeak aurrera jo zuen.

Lehenengo urte horietan lan handiena kalean propaganda mailan burutu zen, baina bestelako gaiak ere, hala nola jorratuz joan ziren: "Soldaduska honi ez!", Gazte Asanblada, aisialdia... 12 urte hauetan gazte asko pasa da Jarraitik, konpromezu maila desberdinak izan direlarik. Gaur egun ere Altzako Jarraik zeregin handia du herrian, eta Altzako gazteria abertzaleak egun Jarraik ematen dion erreferente hori behar du.

Premiazko neurriak langabeziari eta bazterketa sozialari aurre egiteko

Borne boletin honetan sozioekonomia gaia agertarazi nahi dugu, azken hilabete hauetan Herri Batasunak zein Ezker Abertzaleak bere osotasunean gogotsu eta ekimen desberdinak burutu dituzte. Gaia lantzen ari den Jon Urrusolorengana hurbildu gara, berak azalpenak eman diezaz Kigun.

Altza eginez. - Hasteko, koka eza-zu borroka honen nondik norakoak.

Jon Urrusolo. - Lehenik eta behin esan behar da ez dela lehenengo aldia Herri Batasunak sozioekonomia lantzen duena, aspaldian hasiak baikara sozioekonomia inguruan gauza ezberdinak egiten, esate baterako eta urte dexente atzerantz joko bagenu ere ispen industrialak (Bizkaiako Ezkerraldean, Labe Garaiak...) gertatzen hasi zenean, hor ikusiko dugu Ezker Abertzaleko pertsonak buru belarri murgilduta Patronala eta Administrazio esberdinen aurka. Azken urteotan ere, gure Herria, gure ekonomia defentsan, bertako produktuen kontsumoaren aldeko kanpaina... Orain gertu izan dena, marko nazionalen mugitu gara, eta denboran Euskal sindikalismoaren aldarrikapenarekin batera aritu izan gara.

Altza eginez. - Zeintzu dira sozioekonomian Herri Batasunak planteatzen dituen proposamenak?

Jon Urrusolo. - Hurrenez hurren eta era eskematikoan hauek iruditeko. Lehenik lanaldiaren murrizpena eskatzen da, 40 orduetatik 35 orduetara jeistea, eta aparteko orduekin amaitzea. Garbi dago bi neurri hauekin lanpostu berriak sortaraziko genituzkeela. Hala ere, hau lortu-

ta ere, gure gizartean denontzat lan nahikorik izango ez denez, langabezia jarraitu beharko lukeen horrentzat giza soldata eskatzen dugu, hain zuzen ere oinarriko salarioaren kopurua: 68.040 pza. Eta hirugarren eskaera aurreko bi hauekin harreman estua dauka, alokairuzko etxebizitza soziala baita. Denok badakigu euskal gizartean zein prezioetan diren etxebizitzak, eta horregatik politika zehatza eskatzen dugu hutsik diren etxebizitzak alokairuzko merkatura atera daitezten eta berrien ehuneko altu batekin gauza bera.

Altza eginez. - Ondo da, baina hau guztia nola zehaztuko litzateke Altzan?

Jon Urrusolo. - Zehaztapena guk egin beharko dugu zalantzarik gabe. Apirilaren 23an, ordubeteko lanuztearen egunean Altzan eragtzun polita eman bazen, argi dago lan apur bat eginez egoera poliki aldatzen joango dela. Ildo honetatik esan Altzako hainbat enpresetan aparteko orduak egiten ari direla, eta orduhauekin amaitzeko Altzako herriak baduela zen esanik eta egiterik ere, eta hor HBK paper garrantzitsu bat joka dezake. Amaitzeko esan dagoeneko hainbat bilera burutu direla beste sektoreekin et momentuz lana aparteko orduetan zentratzea erabaki dela.

Agenda

Ekainak 13: Buenabistako jaiak.

Ekainak 11/14: Larraxoko jaiak.

- 13an "Euskal Presoak Euskal Herrira" kontzentrazioa arratsaldeko 7etan (AA.BB)

Ekainak 19/21: Herrerako jaiak.

- 21ean "Lehen bait Lehen" plataformaren bazkaria.

Ekainak 19/24: Oletako jaiak.

Ekainak 25/28: Altza Gainako jaiak.

- Jendea behar izango da Herrikoa montatzeko.
- Eguna zehaztu gabe dago baina giza kate bat egingo da.

Ekainak 22, Uztailak 6 eta Uztailak 20: "Altzako Amnistia Aizak Batzordeak" harnabostero egiten ditu enkarteladak Herreran. (azakdi zaitezte)

Uztailak 8.(asteazkena) Altzako Herri Batasunaren Herri Batzarra. Bertan beste beste Ekainean egindako lanaren balorapena egingo da.

Altza iruditan

Hemen dugu azkenik larraxoko errotonda famatua, auzo honetako kotxe trafikoa arazoa konponduko omen duena, eta Larraxoko auzo elkarteak urteetan borrokatu duena. Hala ere ez pentsa Larraxoko arazo guztien konpondibea izango denik. Badira oraindik ere beste zenbait gauza egiteko: Larraxo kaleko peatonalizazioa, Txirrita Bertsolaria norabide bakarrerako utzi... dena den garbi geratu dena da hemen ere ez dagoela uztairik.

